

V. ERANSKINA. PARTE-HARTZE PROZESUA

2024ko maiatza



Asesoría e Investigación Medioambiental

Konbenio, 11 trasera
48340 Amorebieta-Etxano
Bizkaia
Tel.: 94 630 06 19
Fax: 94 630 01 46
ekos@ekos-eeeco.com
www.ekos-eeeco.com

EECO
European Ecological Consulting S.L.
C.I.F. B48827075



**SUSTAPENA, EKIMENA ETA
ZUZENDARITZA**

**PROMOCIÓN, INICIATIVA Y
DIRECCIÓN**

AZPIEGITURETARAKO ETA LURRALDE
GARAPENERAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE INFRAESTRUCTURAS
Y DESARROLLO TERRITORIAL

Carlos Alzaga Sagastasoloa. Diputado Foral de Infraestructuras y Desarrollo Territorial
Aimar Rico Ruiz. Director General de Desarrollo Territorial
Jose María Bilbao Intxaurreaga. Subdirector General de Cohesión Territorial

TALDE TEKNIKOA

EQUIPO TÉCNICO

LURRALDE ANTOLAMENDURAKO ATALA

SECCIÓN DE ORDENACIÓN TERRITORIAL

Idoia Garay Telletxea. Arquitecta. Jefa de Sección
Olga Aldaz Carretero. Arquitecta
Miguel Ángel Blanco Rodríguez. Arquitecto
Ainara Uriarte Baza. Arquitecta
Francisco Javier Hernández Rico. Diseño gráfico

ASESORIA E INVESTIGACION MEDIOAMBIENTAL



Laguntza teknikoa

Asistencia técnica

Adrián Diez Angulo. Geógrafo
Jan-Lukas Menzel Barraqueta. Dr. Ciencias Naturales
Ainize Lopez de Abechuko Kortazar. Graduada Ciencias Ambientales
Miriam Esteban Aldazabal. Geógrafa
Colaboradores
Paula Amuchastegui Moreno. Urbanista (Erdu S.L.)
Joaquin Garcia Purroy. Historiador-Paisajista (Humus Sapiens S.L.)



**PARTE-HARTZE PROZESUKO
LANTALDEA**

**EQUIPO DEL PROCESO DE
PARTICIPACIÓN**

Ana María Macho Moran. Dirección y análisis
Thalía Olatz Sobron Rojo. Análisis
Ane Caro Aramendia. Dinamización y análisis



AURKIBIDEA

Memoria Parte-hatze

I. ERANSKINA: ERAGILEEN INBENTARIOA

II. ERANSKINA: HEDAPENA ETA MATERIALAK

III. ERANSKINA: INPRIMAKIAK

**DURANGALDEKO EREMU FUNTZIONALEKO
PAISAIAREN KATALOGOA ETA
ZEHAZTAPENAK**

PARTE-HARTZE MEMORIA

2024ko maiatza



**SUSTAPENA, EKIMENA ETA
ZUZENDARITZA**

**PROMOCIÓN, INICIATIVA Y
DIRECCIÓN**

AZPIEGITURETARAKO ETA LURRALDE
GARAPENERAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE INFRAESTRUCTURAS
Y DESARROLLO TERRITORIAL

Carlos Alzaga Sagastasola. Diputado Foral de Infraestructuras y Desarrollo Territorial
Aimar Rico Ruiz. Director General de Desarrollo Territorial
Jose María Bilbao Intxaurreaga. Subdirector General de Cohesión Territorial

TALDE TEKNIKOA

EQUIPO TÉCNICO

LURRALDE ANTOLAMENDURAKO ATALA

SECCIÓN DE ORDENACIÓN TERRITORIAL

Idoia Garay Telletxea. Arquitecta. Jefa de Sección
Olga Aldaz Carretero. Arquitecta
Miguel Ángel Blanco Rodríguez. Arquitecto
Ainara Uriarte Baza. Arquitecta
Francisco Javier Hernández Rico. Diseño gráfico

ASESORIA E INVESTIGACION MEDIOAMBIENTAL



Laguntza teknikoa

Asistencia técnica

Adrián Díez Angulo. Geógrafo
Jan-Lukas Menzel Barraqueta. Dr. Ciencias Naturales
Ainize Lopez de Abechuco. Graduada Ciencias Ambientales
Miriam Esteban Aldazabal. Geógrafa
Colaboradores
Paula Amuchastegui. Urbanista (Erdu S.L.)
Joaquín García Purroy. Historiador-Paisajista (Humus Sapiens S.L.)



**PARTE-HARTZE PROZESUKO
LANTALDEA**

**EQUIPO DEL PROCESO DE
PARTICIPACIÓN**

Ana Macho María Macho. Dirección y análisis
Thalía Olatz Sobron Rojo. Análisis
Ane Caro Aramendia. Dinamización y análisis



1. PARTE-HARTZE PROZESUAREN EZAUGARRIEN SARRERA LABURRA	4
2. METODOLOGIA ETA PARTE-HARTZE PROSEZUAREN GARAPENA	5
2.1. Paisaiako eragileen inbentarioa.....	6
2.2. Komunikazio eta parte-hartze bideen prestaketa	7
2.3. Lanaren aurkezpen saioa	8
2.4. 1 inprimakia. Durangaldeko eremu funtzionaleko paisaiaren balorazio inkestak	8
2.5. 2 inprimakia. Durangaldeko etorkizuneko paisaiari buruzko galdetegia	9
2.6. 3 inprimakia. Durangaldeko eremu funtzionaleko Paisaia Kalitatearen Helburuei (PKH) buruzko on line inkestak	11
3. EMAITZAK ETA ANALISIA	12
3.1. Parte-hartze datuen laburpena	12
3.2. Lanaren aurkezpen saioa	12
3.3. Paisaiaren pertzepzio eta balorazio inkestak	12
3.4. Talde-elkarrizketak eta tailerrak	24
3.5. PKHei buruzko inkestak	33
4. ONDORIOAK ETA LABURPENA	44

ERANSKINAK

- | | |
|--------------|---------------------------------|
| 1 ERANSKINA: | Eragileen inbentarioa |
| 2 ERANSKINA: | Hedapena eta materialak |
| 3 ERANSKINA: | Inprimakiak: ereduak eta datuak |



1. PARTE-HARTZE PROZESUAREN EZAUGARRIEN SARRERA LABURRA

Eragile ezberdinen – administrazioak, erakunde publikoak eta pribatuak, kolektibo sozialak eta herritarrak – parte-hartzeak eta inplikazioak garrantzia handia hartzen du paisaiari dagokionez. Izan ere, paisaia hautemateko eta baloratzeko subjektibotasun-maila handia dago. Hori dela eta, Durangaldeko Paisaiaren Katalogoa eta Zehaztapenak idazteko lanekin batera parte-hartze prozesu irekia, plurala eta jarraitua garatu dugu.

Prozesu honen helburu nagusia parte-hartzaile bakoitzak, maila partikularrean edo erakunde publiko zein pribatuko ordezkari gisa, paisaiari buruz duen pertzepzioa eta bere indarguneak eta ahultasunak adieraztea, gertatuko eraldaketei buruzko iritzia ematea eta hau hobetzeko helburuak eta ekintzak zehazten laguntzea izan da.

Administrazioaren, idazketa taldearen eta parte-hartzaileen arteko komunikazioa errazteko hainbat baliabide jarri dira eskuragarri, digitalak zein tradizionalak. Hau pertsona talde eta/edo kolektibo ezberdinen ohituretara egokitzeko egin da.

On line inkestez gain, gizartearen parte-hartzea errazteko bestelako dinamikak egin dira: aurkezpen saio bat, paperezko inkestak, hitzartutako talde-elkarriketak eta herritarrentzako tailer irekiak.



2. METODOLOGIA ETA PARTE-HARTZE PROSEZUAREN GARAPENA

Parte-hartze prozesuan laneko hasierako hiru faseekin bat datozen (Paisaiaren Katalogoa lantzen dituztenak) ondorengo ekintzak burutu dira:

1. fasea: Paisaiaren identifikazioa eta dokumentazioa:

- 1.- Paisaiaren eragileen inbentarioa.
- 2.- Komunikazio eta parte-hartze bideen prestaketa.
- 3.- Lanaren egikaritzearen informazio-aurrezpena.
- 4.- 1 inprimakia. Durangaldeko eremu funtzionaleko paisaiaren balorazio inkestak.

2 fasea: Paisaiaren ebaluazioa

- 5.- 2 inprimakia: Durangaldeko etorkizuneko paisaiari buruzko galdetegia, aurrez aurreko ekintzen bidez eta *on line*:
 - Talde elkarrizketak
 - *On line* inkestak
 - Paisaiaren tailerrak

3 fasea: Paisaiaren katalogoa

- 6.- 3 inprimakia. Durangaldeko eremu funtzionaleko Paisaia Kalitatearen Helburuei (PKH) buruzko *on line* inkestak.

Azkenik, Durangaldeko Eremu Funtzionaleko paisaiaren katalogoa eta zehaztapenen azken dokumentua entregatu ondoren, foru aldundiaren webgunearen bidez eta dagokion esteka duen informazio-*mailing* baten bidezko hedapena egitea aurreikusten da.



2.1. Paisaiako eragileen inbentarioa

Hainbat eragileekin osatutako inbentarioa osatu da. Inbentario hau parte-hartze prozesu osoan berrikusi eta eguneratzeko irekita dagoen erregistro bat da.

Inbentarioak ondorengo barne hartzen du:

- Udaletxeak, sail ezberdinen (hirigintza, ingurumena, kultura...) eragile politikoak zein teknikoak.
- Eskualdeko kudeaketa-erakundeak: Durangaldeko mankomunitatea eta Urkiola Landa Garapen Alkartea.
- Eskualdez gaindiko erakunde publikoak: Bizkaiko Foru Aldundia eta lehen sektoreko, ingurumen kudeaketako, turismoko eta hezkuntza sektoreko erakundeak.
- Durangaldeko esparru ezberdinetako elkarteak (kultura, ingurumena, kirola eta aisialdia), bai eta gizarte-kolektibokoak ere (emakumeak, adinekoak, erretiratuak...).
- Durangaldea azpiegiturak: Urkiolako parketxea (Urkiolako Parke Naturaleko Ingurumeneko Interpretazio Zentroa) eta hainbat ikastetxe.
- Lanbide-esparru ezberdinetako erakunde pribatuak (lehenengo sektorea, zerbitzuak, ondarearen kontserbazioa, ekologista, sindikala, gizarte-kolektiboak, etab).
- Durangaldeko hedabideak.
- Lanbide elkargoak.

Guztira 95 eragile eta 119 posta elektroniko identifikatu dira. Hurrengo taulan eragile hauek kategoria ezberdinetan banatzen dira:

Eragile motak	Eragile kopurua	Harremanetarako posta
Udaletxeak	11	24
Eskualdeko kudeaketa-erakundeak	2	2
Eskualdez gaindiko erakunde publikoak	9	15
Durangaldeko elkarteak	22	23
Durangaldea azpiegiturak	7	7
Erakunde pribatuak	29	31
Hedabideak	3	5
Lanbide elkargoak	12	12
	95	119

1 Eranskinean inbentariatutako eragile ezberdinen zerrenda jasotzen da.



2.2. Komunikazio eta parte-hartze bideen prestaketa

Hasteko, goiburu eta logo espezifiko baten diseinua egin da. Hauen bidez, irudi soil batekin lanaren esparrua ezagutu eta identifikatu nahi da. Horretarako, Durangaldearekin mugakide den Igorreko eremu funtzionaleko Paisaiaren Katalogoa eta Zehaztapenak egiteko erabilitako antzeko irudi-lerroa jarraitu da.

DURANGALDEKO PAISAEI BEGIRE



Komunikazio birtualeko bide gisa, Bizkaiko Foru Aldundiko Azpiegitura eta Lurralde Garapen Sailak Durangaldeko Eremu Funtzionaleko Paisaiaren Katalogoaren eta Zehaztapenen atal bat prestatu du bere webgunean:

Euskara: <https://www.bizkaia.eus/eu/gaia-xehetasuna/-/edukia/dt/12559>

Gaztelera: <https://www.bizkaia.eus/es/tema-detalle/-/edukia/dt/12559>

Bertan, proiektua azaltzeaz gain, 1 eta 3 inprimakietarako sarbidea eman da.

Informazioa Bizkaiko Foru Aldundiko sare sozialetan ere zabaldu da, "Lurralde Bizia" izeneko Facebook eta Twitter kontuen bidez .

Era berean, fase guztietan zehar, Paisaiaren eragileen inbentariora informazio-*mailingak* eta tokiko hedabide digitaletan argitalpenak egin dira. Gainera, paperezko informazio-kartelak ere jarri dira.

Euskarazko eta gaztelerazko aurkezpenak prestatu dira aurrez aurreko saioetan (talde elkarrizketak eta tailerra) erabiltzeko. Azkenik, paisaiaren tailerretarako laguntza eta girotze material gisa erabili diren bi informazio kartel egin dira: Bat Durangaldean definitu diren paisaia-unitateekin eta bestea eremu funtzionalean sartutako paisaia-interes bereziko eremuetan.

2. eranskinean saioen hedapenaren eta irudien lagin bat jaso da.

DURANGALDEKO PAISAEI BEGIRE





2.3. Lanaren aurkezpen saioa

Bizkaiko Foru Aldundiak gonbidatuta, erredakzio-taldea eta lan metodologia eta parte-hartze prozesuaren faseak ezagutzera emateko proiektuaren aurkezpen saio publikoa da.

Saioa 2023ko urriaren 24an egin zen, Durangon, 12:30tan, 17 pertsonetarako edukiera duen Intxaurreto aretoan (Laubideta kalea 6 A).

Edukiera mugatua zenez, lanaren aurkezpen instituzionala administrazio publikoetara mugatu zen (udalak eta foru sail ezberdinak). Saioaren berri lana sustatu duen foru sailetik eman zen, posta elektronikoz.

Saioari hasiera emateko Lurralde Antolamendu eta Hirigintzako Foru Zerbitzuak laburpen sarrera bat egin duen. Honen ostean, erredakzio-taldeak lanaren helburuak eta lan-fase ezberdinak azaldu zituen eta bere garapenean gizarte parte-hartzeak duen garrantzia azpimarratu zuen.

Aurkezpenera 12 pertsona joan ziren guztira. Horietatik, 3 Durangoko udaletxeak ziren eta gainerakoak Foru Aldundiako teknikariak.

2.4. 1 inprimakia. Durangaldeko eremu funtzionaleko paisaiaren balorazio inkestak

Herritarren parte-hartze irekirako iritzi-inprimakia bat egin da Durangaldean bizi eta/edo lan egiten duten pertsonen inguruko paisaiaren duten pertzepzioa ezagutzeko eta nola baloratzen duten jakiteko. Euskaraz zein gazteleraz bete daitekeen inkesta anonimo bat da, iritziak askatasunez adieraztea bermatzeko. Hala ere, parte-hartzaileen profila zehaztu ahal izateko datu pertsonal batzuk eskatu dira (adina, sexua, bizitokia, jaioterria eta Durangaldearekiko harremana). Era berean, herritar gehienek ulertzeko eta erraz betetzeko moduko galdetegia egin da.

Inkesta hauen bidez, gehien eta gutxien erakartzen duten paisaia-motak ezagutu nahi dira, bai eta parte-hartzaileen iritziz aipamen positiboa edo negatiboa merezi dutenak ere. Paisaiaren ikuspuntutik Durangaldeak dituen indarguneak eta ahuleziak ere jaso nahi dira. Azken hamarkadetan paisaia aldaketa nabariak somatu dituzten ere galdetzen da. Azkenik, paisaiaren balorazio orokor bat egitea eskatzen da, 1etik 10erako eskala batean.

Galdetegiko galderak irekiak zein itxiak dira. Informazio hau Paisaiaren Interes Bereziko Eremuen (PIBE) identifikazioa egiaztatzeko, berresteko eta ezartzeko eta



Paisaia Kalitate Helburuak (PKH) zirriborratzeko balio du. Bi gai hauek parte-hartze prozesuaren ondorengo faseetan landuko dira.

Ahalik eta parte-hartze handiena lortzeko asmoz, inkesta bi modutan zabaldu da. Alde batetik, bide digitalekin, *Google form*seko *on line* inprimakira sartzeko estekekin (Bizkaia.eus webgunea, udalentsako eta eragileentzako posta elektroniko eta whatsapp bidezko bidalketa). Bestetik, udal eta kultura-zentroetan paperezko galdetegiaren eta inprimaki digitalera sartzeko QRaren banaketa egin da.

Inkestak bi hilabetez zabalik egon dira, 2023ko irailaren 20tik azaroaren 20ra bitartean. Epea amaitzean, eremu funtzionaleko udalerrietan zehar banatu diren paperezko inkesta guztiak batu dira. Guztira 107 inkesta batu dira, *on line* zein paperean. Jasotako azken *on line* inkesta epez kanpo jaso zen, baina hau ere kontuan hartu da.

3. eranskinean paisaiaren balorazio inkesta jasotzen da (1. inprimakia).

2.5. 2 inprimakia. Durangaldeko etorkizuneko paisaiari buruzko galdetegia

Lurraldearen plangintzan paisaiaren aldagaia gehitzeko, Paisaiaren Interes Bereziko Eremuak identifikatzeaz gain, ondorengoei buruz herritarrek duten iritzia jakitea ere garrantzitsua da: Durangaldeko paisaiaren balio positibo eta negatiboak, hobetu beharreko alderdiak, gauzatu beharreko lehentasunezko jarduerak...

Informazio hau ondorengo bitartekariak erabilita jaso da:

- Talde-elkarrizketak, eragile ezberdinekin eta aurrez aurrekoak.
- *On line* inprimakiaren *mailinga* inbentarioko eragileei.
- Aurrez aurreko tailerra herritarrekin.

3. eranskinean 2. inprimakiaren ereduak jaso dira.



Eragileekin egindako talde-elkarrizketak

2023ko azaroaren 20an talde-elkarrizketak burutzeko aukeratutako eguna izan zen. Egun honetan ordubeteko 8 saio finkatu ziren, goizez eta arratsaldean banatuta. Parte hartzeko gonbidapena informazio-*mailing* baten bidez egin zen.

Durungaldeko Paisaiaren Katalogoa egiteari eta bere helburuari buruzko sarrera labur baten ondoren, aurrez aurreko saio hauek dinamizatzeko paisaiaren kontzeptuari, bere elementuei eta eskualdeko paisaiei buruzko proiektzio didaktiko bat erabili zen. Proiektzio honetatik abiatuz hausnarketa eta parte-hartzaileen ekarpenak sustatu nahi ziren iritzi-formulario bat betetzeko.

Saioa Durangoko Intxaurrondo aretoan egin zen. Guztira hainbat arlotako 6 eragilek parte-hartu zuten (lurralde- eta enpresa-kudeaketa, hezkuntza, kirola eta politika).

on line inprimakia

Aurrez aurreko parte-hartze txikia dela eta, inkesta *on line* formatuan betetzeko esteka zuen *mailing* berri bat egitea erabaki zen. Bide honen bidez 16 inprimaki jaso ziren.

Parte-hartze tailerrak herritarrekin

Tailer hauen helburua talde-elkarrizketetan jasotako informazio mota berdina lortzea da, baina ekintza interaktiboago bat erabilita. Horretarako, burutzen ari den sarrera txiki baten eta paisaiaren proiektzio didaktikoaren ostean, inprimakiaren galderak erantzuteko jolas-ekintzak prestatu ziren.

Guztira gelan egiteko 6 paisaia-tailer eskaini ziren, gaian interesa duen pertsona orori irekita eta alde zuzeneko izena eman gabe. Bi egun ezberdinetan antolatu ziren, jarraian agertzen diren ordutegi eta Durungaldeko eremu funtzionaleko udalerrri hauetan:

- 2023ko abenduaren 11a, astelehena:
 - 11:30-13:00h: Amorebieta-Etxano
 - 16:00-17:30h: Zaldibar
 - 18:30-20:00h: Durango
- 2023ko abenduaren 13a, asteazkena:
 - 10:00-11:30h: Berriz
 - 12:30-14:00h: Abadiño
 - 16:00-17:30h: Elorrio



Tailerren programazioa udalek eskuragarri jarritako aretoen egun eta ordutegi libreetara egokitu zen.

Parte-hartze prozesuaren zabalketa udalek egin zuten. Horretarako, udalei tailerren programazioaren kartela eta parte-hartze prozesuaren informazioa helarazi zitzaizen posta elektronikoz, haien iragarki-tabloietan eta sare sozialen bidez zabaltzeko.

Berlaratzeari dagokionez, 3 pertsona baino ez diren joan Zaldibarko tailerrera.

2.6. 3 inprimakia. Durangaldeko eremu funtzionaleko Paisaia Kalitatearen Helburuei (PKH) buruzko on line inkestak

Ekintza hau 3. fasearen aurrerapen dokumentua amaitu ondoren burutu da. Bere helburua aurretiaz zehaztutako Paisaia Kalitatearen Helburuak ezagutaraztea eta behin betiko Katalogoan izango duten lehentasun ordena ezartzeko gizarte iritzia kontuan hartzea da.

2024ko urtarrilean datu basean jasotako kontaktuei euskarazko eta gaztelerazko inprimakiei sarbidea ematen dion estekak helarazi zitzaizkien. Inprimaki hau foru webgunean ere jarri zen eskuragarri.

Galdetegian Paisaia Kalitatearen Helburuak (PKH) 1etik 5erako eskala batean balioztatu behar dira. Era berean, PKH bakoitzaren baitan hauek lortzeko bi ekintza-neurri sartu dira, kualitatiboki zenbatetsi behar direnak. Ekintza-neurri gehiago edo oharrak gehitzeko aukera ere ematen da.

Inprimakiak jasotzeko epea otsailaren 6an amaitu zen. Egun horretara arte 10 betetako 10 inprimaki jaso ziren.

3. eranskinean PKHei buruzko inkesta ereduak jasotzen da.



3. EMAITZAK ETA ANALISIA

3.1. Parte-hartze datuen laburpena

Parte-hartze prozesua	Pertsona kopurua
Lanaren aurkezpen saioa	12
1 Inprimakia. Paisaiaren balorazio inkestak	107
2 Inprimakia. Durangaldeko etorkizuneko paisaia	25
3 Inprimakia. PKH inkesta	10
Guztira	154

3.2. Lanaren aurkezpen saioa

Lanaren aurkezpenean Bizkaiko Foru Aldundiko Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Saileko, Durangoko udaletxeko eta zinegotziko Hirigintza saileko teknikariak egon ziren. Nabarmena izan zen Durangaldeko Eremu Funtzionaleko gainerako udalerrien ordezkarien presentzia.

Sesioa arin joan zen. Bertan Durangoko udaletik bertaratutakok lanaren inguruko eta bere garapenari buruzko informazioa jasotzeko interesa aurkeztu zuten.

3.3. Paisaiaren pertzepzio eta balorazio inkestak


PARTE-HARTZAILEEN PROFILA

107 inkestak bete dituzten profil orokorra adin ertainekoa da (30-64 urte bitartekoak, 30-44 urte bitartekoak izanik ordezkaritza handiena dutenak), Durangaldean bizi dena, euskalduna eta trebetasun digitala duena. Inkesten %72a *on line* bidez bete dira.


Parte-hartzea nahiko orekatua izan da gizon eta emakumezkoen artean. Nahiz eta gizonen gehiengo txiki batekin (%55).



Parte-hartzaileen adina




Parte-hartzaileen sexua




Parte-hartzaile gehienak Durangaldekoak dira (%76). Nabarmentzekoa da, alde batetik, Abadiñon, Amorebieta-Etxanon, Elorrian eta Durangon bizi direnen parte-hartze handiagoa eta, bestetik, Berriz, Garai, Izurtza eta Mañarian bizi direnen parte-hartze eza.

Parte-hartzaileen bizitokia



Durangaldean bizi diren parte-hartzaileak



Era berean, parte-hartzaile gehienak jatorriz Durangaldekoak (%49) edo Bizkaiko beste udalerrri batzuetakoak dira (%26).

Jatorriz Gipuzkoakoak, estatuko beste toki batzuetakoak eta atzerritarrak direnak ere parte hartu dute. Durangaldean jaioetakoen artean, ehuneko handienak Abadiñon, Elorrian, Durangon eta Amorebieta-Etxanon daude.


DURANGALDEKO PAISAI EI BEGIRE




DURANGALDEKO ERREMU FUNZIONALEKO PAISAIAREN KATALOGOA ETA ZEHAZTAPENAK
CATALOGO Y DETERMINACIONES DEL PAISAJE DEL AREA FUNCIONAL DE DURANGALDEA



Parte-hartzaileen jaioterria




Durangaldean jaiotako parte-hartzaileak



Parte-hartzaileek Durangaldearekin duten harremanari dagokionez, erdiak baino gehiago Durangaldean bizi dira (%61). Beste batzuk zonaldean lan egiten dute, bertan familia dute edo aisialdian bisitatzen dute. Hala ere, %21ak ez du galdera hau erantzun.

Parte-hartzaileek Durangaldearekin duten erlazioa





PAISAIAREN PERTZEPZIOA

Landa-paisaiak eta paisaia-naturalak nahiago dira, oso antropizatuta dauden paisaien aldean, batez ere industrialdeak, eraikitako edo eraikitzen ari diren bide-azpiegitura handiak dituztenak eta aire zabaleko meatze-ustiapenak.

Gehien erakartzen duten paisaiak gutxi urbanizatutako edo urbanizatu gabeko inguruneak, landa-paisaiak eta ikuspegi handiak edo erliebea duten paisaiak dira.

Gutxien erakartzen duten paisaien kasuan, berriz, ondorengoak dira hautatuak izateko arrazoi nagusiak: natura eta paisaiaren suntsipena eta eraldaketa, jarduera antropikoak ingurunean ez integratzea eta eragiten duten sentimendu negatiboak.

Gehien erakartzen duten paisaiak



(11. Irudia) %16




(3. Irudia) %15



(13. Irudia) %14

Hautaketaren arrazoiak



Gutxien erakartzen duten paisaiak



(7. Irudia) %29



(6. Irudia) %28



(12. Irudia) %2%


DURANGALDEKO PAISAI EI BEGIRE



DURANGALDEKO ERREMU FUNZIONALEKO PAISAIAREN KATALOGOA ETA ZEHATZABENAK
CATALOGO Y DETERMINACIONES DEL PAISAJE DEL AREA FUNCIONAL DE DURANGALDEA



Hautaketaren arrazoiak



“Beste bat” aukera izan da bigarren bozkatuena, boto guztien ia %32ra iritsiz. Aukera honetan hiru arrazoi hauetan laburbildu daitezkeen iruzkinak jaso dira:


- ☐ Naturaren eta paisaiaren suntsitzea eta eraldaketa
- ☐ Ingurunean integratu gabeko giza erabilerak
- ☐ Sentimendu negatiboak eragitea

PAISAIAREN INDARGUNEAK

Aipatutako indarguneak honela sailkatu dira:

- o Paisaia naturala (mendia, karst-a, basoak, ura...)
- o Landa-paisaia eta -jarduerak (baserriak, abeltzaintza, nekazaritza...)
- o Gizartea, historia, kultura, ohiturak eta ondarea (erabilera tradizionalak, arkitektura, nortasuna...)
- o Jarduera ekonomikoa eta azpiegiturak
- o Pertzepzioak, sentimenduak: Kategoria honetan esperientzia pertsonalarekin eta hautemandako sentimenduekin erlazionatutako ekarpenak barneratu dira. Adibide batzuk: “paisaiaren berdea”, konplexutasuna eta kontrastea”, “naturarekiko hurbiltasuna”, “koloreen aniztasuna”, “paisaiaren dotorezia”, “bizi-kalitatea”...

Naturarekin erlazionatuta elementuak izan dira paisaiaren indargune gisa gehien baloratutakoak (%68). Ehuneko honen barruan, nabarmentzekoa da erdia baino gehiago (%51) erliebeari dagokiola (mendiak, karst-a, haitzak, gailur-lerroak...). Beraz, Durangaldeko paisaia menditsua izan da argi eta garbi parte-hartzaileek gehien baloratu duten indargunea.



Pertzepzio- eta emozio-paisaia eta landa- eta kultura-paisaia ere indargune gisa ikusten dira, biak batera %31era iritsiz. Kontuan hartu behar da "landa eremuak" aipatzen den gehienetan zentzu zabalean egiten dela (nekazaritza, arkitektura tradizionala, ohiturak, ikusizko pertzepzioa...). Hau horrela, esan daiteke Durangaldeko eremu funtzionalean landa-eremua identitate elementutzat eta paisaiaren indargunetzat hartzen dela.

%1a jarduera ekonomikoak eta azpiegiturak Durangaldeko indargune direla uste du, aberastasuna sortzen dutelako eta despopulazioa saihesten laguntzen dutelako.

Parte-hartzaileen %5a ez dio galdera honi erantzun.




PAISAIAREN AHULEZIAK

Parte-hartzaileen %6ak ez du galdera hau erantzun eta bi pertsonak uste dute ez dagoela inolako ahuleziarik. Gainerakoen iritziz, Durangaldeko paisaiaren ahulezia guztiak giza jardueren lotuta daude.

Identifikatutako ahuleziak ondorengoak izan dira:

- o Azpiegitura eta obra handiak (%32), abiadura handiko trenaren lanak nabarmenduz.
- o Industria (%25), paisaian duen presentzia handia eta mantentze eskasa nabarmenduz. Berezi aipatuak izan dira paper-fabrika, harrobiak eta Zaldibarko zabortegia.
- o Ingurumenaren degradazioa eta paisaiaren artifizializazioa (%22), baliabideen gehiegizko ustiapenak, hirigintza-hedapenak eta baso-landaketa monoespezifikoak (batez ere pinuak eta eukaliptoak) eraginda.
- o Industria-jarduerak eta trafikoak eragindako kutsadura (%13), usain txarrak eta airearen kalitate txarra eragiten dutenak. Ibaien kutsadura ere espresuki aipatzen da.
- o Beste batzuk (%9): nekazaritza eta abeltzaintza erabilera tradizionalak bertan behera uztea, eredu kapitalista nagusia, eremu degradatuak eta ingurumenarekiko kontzientziario falta.

Paisaiaren ahulguneak





PAISAIAREN ALDAKETAK

Paisaiaren aldaketei dagokionez, gehiengoaren arabera paisaiak txarrera aldatu da (%69), eta orokorrean, azpiegituren hazkundeari eta giza jarduerak eremu naturalari hartutako tokiari egozten diote.


Bestalde, %4ak paisaiak hobera egin duela uste du. Kasu honetan, batzuen iritziz ingurumena kontserbatzeko politika berrien ondorioa da.

%5ak paisaiaren aldaketa zonaldearen araberako dela uste du eta %3ak paisaia aldatu dela esaten su baina ez du aipatzen hobera edo txarrera egin duen.

%2ak paisaian aldaketak ez dela egon uste du.

Azkenik, aipatzekoa da parte-hartzaileen %17ak ez duela galdera honi erantzun eta kasu batzuetan galdera osatu gabe zegoela argudiatu dute, ez baitzen adierazten aldaketa hau noiztik hartu behar zen kontuan.

Paisaiaren aldaketak



DURANGALDEKO PAISAEI BEGIRE




DURANGALDEKO EREMU FUNZIONALEKO PAISAIAREN KATALOGOA ETA ZEHATZABENAK
CATALOGO Y DETERMINACIONES DEL PAISAJE DEL AREA FUNCIONAL DE DURANGALDEA



PAISAIA-ENKLABE POSITIBOAK ETA OSO NABARMENAK

Durangaldeko paisaia naturala eratzen duten paisaia-enklabeak nabarmentzen dira batez ere positibotzat eta oso garrantzitsutzat (%64). Jarraian, landa-eremuari lotutakoak (%24) eta hiriguneetako espazio ezberdinak (%12) aipatzen dira.



Paisaia natural honetan "mediak", "ibaiertzak", "haranak" eta abarren moduko aipamen orokorrak sartu dira. Mendiak dira gehien baloratu diren paisaia-enklabeak. Izan ere, ekarpenen %48a Urkiola edo Parke Naturala osatzen duten mendiak aipatzen dituzte (Aitxiki, Anboto, Aramotz, Artzetagan, Belatxikieta, Besaide, Eskuagatz, Mugarra, Neberondo, Saibigain eta Untzillaitz). Udalaitz eta Oiz mendiak, Atxondoko, Mañariako eta Mendiolako ibarrak eta Ibaizabal ibaiaren ibaiertza ere nabarmendu dira.

Landa-eremuan "zelaia", "baserriak" edo "landa zonaldeak" orokorrean nabarmentzen dira, auzoak eta landa-guneak barne hartuta. Azken hauen artean hauek dira aipatuak izan direnak: Arrazola, Axpe, Bitaño, Boroa, Etxano, Garai, Gazeta, Gaztelu, Muntzaratz, Otxandio eta Zornotza.

Hiriguneetan, arkitekturari, plaza, parkeei, eta abarrei buruzko aipamen orokorrak egiten dira. Hauen artean Durangoko, Elorrioko, Iurretako eta Abadiñoko hirigune historikoak nabarmentzen dira.

Enklabe hauetako gehienak bat datoz hasieran Paisaiaren Interes Berezikoko Eremu (PIBE) gisa identifikatutakoekin. Ondorengoak dira:

1. PIBE: PAISAIA NATURALAK	
1.1 PIBE	Urkiolako Parke Naturala
1.2 PIBE	Udalaitz Mendia
2.1 PIBE: URETARA LOTUTAKO PAISAIK (ondo kontserbatutako ibaiertzak)	
2.1.A. PIBE	Ibaizabal ibaiertzak
3. PIBE: LANDA PAISAIK ETA HARANAK	
3.1 PIBE	Gazeta auzoa
3.4 PIBE	Etxano auzoa
3.6 PIBE	Garaiko landa-multzoa
3.8 PIBE	Barrio Gaztelu auzoa
3.9 PIBE	Barrio Boroa auzoa
3.11 PIBE	Atxondo harana



3.12 PIBE	Mañaria harana
3.13 PIBE	Mendiola harana
4.1 PIBE: PAISAIA ANTROPIKOAK (Kulturalak)	
4.1.A PIBE	Durango hirigune historikoa
4.1.B PIBE	Elorrio hirigune historikoa
4.1.C PIBE	Urkiolako santutegia*
4.4 PIBE: PAISAIA ANTROPIKOAK (Errepide eszenikoak)	
4.4.A PIBE	Garaiko errepidea

Urkiolako Santutegia esplizituki aipatzen ez den arren, Urkiolari buruzko aipamen orokorretan barne gera liteke.

Beraz, hasiera batean PIBE gisa identifikatu ez diren ondorengo enklabeak aipatu dira:

- Oiz mendia
- Axpeko, Bitañoko, Muntzarazko, Otxandioko eta Zornotzako landa-guneak.
- Iurretako eta Abadiño hirigune historikoak.

PAISAIA-BALIO BAXUA EDO BALIOGABEA DUTEN ENKLABEAK

Paisaia-balio baxua edo baliogabea duten enklabe gisa ondorengoak nabarmentzen dira:


- 1.- AHTko lanak eta beste azpiegitura handiak (%23): azken huen artean autobidea eta Durango-Amorebietako hiri-industria jarraitua (N-634) barne hartzen dira. Gehien aipatzen den azpiegitura AHTarena da (%19).
- 2.- Industria-jardueren arloan aipamen ugari egin dira (%59). Jarduera motaren arabera ondorengoak ezberdindu dira:
 - Harrobiak orokorrean (%17). Manariko harrobiak izan dira gehien agertu direnak (%9), baina Atxartekoak ere aipatuak izan dira (%1).
 - Paper-fabrika (%14) Iurretako egungo Smurfit Kappa fabrikaren instalazioei erreferentzia eginez.
 - Industria-guneak (%13): Kategoria honetan guna hauen aipamen orokorrak eta industria-gune zehatzak sartu dira, hala nola, Abadiño-Durango, Berriz, Iurreta eta Elorrio industria-eremuak.
 - Boroako zentral termikoa (%5). Espresuki aipatua izan denez ez da aurreko kategorian sartu.
 - Hondakinen azpiegiturak (%2), Zaldibar eta Mallabiako zabortegeak aipatuak izan dira
 - Burdinolak (%2).

DURANGALDEKO PAISAIEI BEGIRE





- Oizko parke eolikoa (%1).
- 3.- Hiri eremu ezberdinak (%10): Multzo honetan Abadiñoko merkataritza-gunea, Berrizko, Zaldibarko, Durangoko eta Iurretako hiriguneak eta Eubako, Andikoako, Gereako eta Atxondoko auzoak sartu dira.
- 4.- Hirigintza-plangintza arduragabea duten enklabeak (%6): Hirigintza-plangintzari, paisaiaren integrazio ezari, gizakiak ingurunean duen eraginari, obrei, lur-erazketei eta bertan behera utzitako eremuei buruzko aipamen orokorrak sartu dira kategorian honetan..
- 5.- Baso-monolaborantzak (%2).



Eraitza hauek aurretiaz zehaztutako Paisaiaren Interes Berezikiko Eremuekin (PIBE) alderatzean, paisaia antropikoen kategorian jasotako enklabeekin ondorengo bateragarritasunak topatzen ditugu:



4. PIBE: PAISAIA ANTROPIKOAK		
Produktiboak	4.2.A PIBE	Oizko parke eolikoa
	4.2.B PIBE	Mañariko harrobia
	4.2.C PIBE	Atxarteko harrobia
	4.2.F PIBE	Abadiño-Durango industria-eremua
	4.2.H PIBE	Durango eta Amorebieta arteko hiri-industria jarraitua
Hondakinen azpiegiturak	4.3.A PIBE	Zaldibar


Hortaz, parte-hartzaileek paisaia-balio baxuko edo baliogabe gisa identifikatutako beste enklabe hauek zehaztu dira:

- AHT azpiegitura berriko lanak
- Iurretako paper-fabrika
- Mañariko zaborteziak
- Boroako zentral termikoa
- Errepideen azpiegiturak (AP8)
- Abadiñoako merkataritza-gunea
- Berrizko, Zaldibarko eta Iurretako hiriguneak
- Eubako, Andikoako, Gereako eta Atxondoko auzoak

PAISAIAREN BALIOESTEA

1etik 10erako eskala batean, Durangaldeko paisaiaren balioespen kuantitatibo batean, lortutako **batez besteko balorazioa 7koa** izan da.

Parte-hartzaile gehienek oso ondo edo bikain moduan balioesten dute (%76). Gainerakoek, paisaia hobetu edo asko hobetu daitekeela uste dute. Izan ere, gainditutzat (%15) edo gutxitzat (%7) jo dute. %2ak ez du galdera hau erantzun.



DURANGALDEKO PAISAI EI BEGIRE



DURANGALDEKO EREMU FUNZIONALEKO PAISAIAREN KATALOGOA ETA ZEHATZABENAK
CATALOGO Y DETERMINACIONES DEL PAISAJE DEL AREA FUNCIONAL DE DURANGALDEA



3.4. Talde-elkarrizketak eta tailerrak

Atal honetan aurrez aurreko talde-elkarrizketetan eta tailerretan eta paisaiaren eragileei bidalitako inprimakian jasotako erantzunak batzen dira. Emaidza hauetan paisaiaren balioa, hobetu beharreko alderdiak eta helburuen eta ekintzak proposamenak sartzen dira.

PARTE-HARTZAILEEN PROFILA

Talde-elkarrizketa hauetan tokiko, eskualdeko eta autonomia-mailako 6 eragilek parte hartu zuten arlo ezberdinen ordezkari gisa (lurralde- eta enpresa-kudeaketa, hezkuntza, kirola eta politika).

Zaldibarko tailerrean 3 pertsonek hartu zuten parte. Horietatik bat udalerriko alkatea izan zen eta beste biak herriko auzokideak.

On line bidezko inprimakia 16 pertsonek bete dute modu anonimoan eta beraz, ezin dugu jakin zein eragileri dagozkien.




Talde-elkarrizketetan ordezkaturako arloak

PAISAIAREN BALIO POSITIBOAK ETA NEGATIBOAK

Durungaldeko paisaiaren 69 alderdi identifikatu dira guztira. Hauetatik %54 balio positibotzat jotzen dira eta %46 negatibotzat. Honek paisaiaren pertzepzio arinki positiboa adierazten du.

Funtzioaren araberrako hurrengo kategorietan taldekatu dira paisaiaren balioak bere analisirako:



Paisaiaren balioak


- *Balio ekologiko eta naturalistikoak*: ingurune fisikoa osatzen duten paisaiaren espazio, elementu edo faktoreak, abiotikoak zein biotikoak (klima, erliebea, geologia, habitata, biodibertsitatea, konektibitate ekologikoa...)
- *Gizarte-, kultura eta historia balioak*: gizarte-erabilera dutenak, bai eta bizimoduak eta ohiturak, arte-adierazpenak, eraikin, kokaleku eta egitura ekonomiko ezberdinak ere.
- *Balio produktiboak*: onura ekonomikoa emateko gaitasuna dutenak.
- *Pertzepzio-balioak*: paisaiaren zentzumen-pertzepzioarekin lotutakoak.



- *Balio estetikoak*: kategoria honetan edertasun-sentimendu jakin bat transmititzeko gaitasuna duten paisaiaren espazio, elementu eta faktoreak sartzen dira. Bai berezko balioengatik (koloreak, formak, testurak...), bai kultura-eredu eta patroio historiko jakin batzuei lotutako edertasun ideia batzuei lotuta egoteagatik.
- *Balio erlijioso eta espiritualak*: erlijio-praktika eta -sinesmenekin, erritoeekin, jaiekin, erromeriekin, prozesioekin, hileta-monumentuekin eta abarrekin lotutako agertokiak.
- *Balio sinboliko eta identitarioak*: esanahiagatik edo karga sinboliko eta identitarioagatik identifikatutako espazio, elementu eta faktoreak, harreman edo jabetza-adierazpenak ezartzen dituztenak.

Aipatutako balio positiboei dagokionez, gehienak balio ekologiko eta naturalistikoi (haitzak, errekek, biodibertsitatea, berdeguneak...) eta gizarte-, kultura eta historia balioei (arkitektura, ibilbideak, ohiturak...) dagozkie. Ondoren, balio produktiboak (landazabal atlantikoa, abeltzaintza estentsiboa eta baserria), balio pertzeptiboak (lurraldearen erabilerekin orekan dagoen paisaia naturala) eta balio sinboliko eta identitarioei (lekuaren identitatea eta bertakoa izatearen sentimendua) daude. Ez dira balio estetiko erlijioso eta espiritualik identifikatu.

Identifikatutako alderdi negatiboen artan ondorengoak nabarmentzen dira, hurrenez hurren: gizarte-, kultura eta historia balioak (bisitarien emendioa, azpiegitura linealak, oinezko eta bizikleten konektibitatearen funtzionaltasun eskasa, gizarte-kontzientziazio eza...), estetikoak (utzikeria, urbanizazioa eta industrializazioa, AHT eta beste azpiegiturak, matarrasak...), ekologiko eta naturalistikoak (alubioi-lautaden industrializazioa, erreken kutsadura eta airearen kalitate txarra), produktiboak (caso-landaketa monoespezifikoak, nekazaritzaren gainbehera, harrobiak...) eta pertzeptiboak (inguruneko soinu eta usain disonanteak). Hemen ere ez dira mota erlijioso eta espiritualeko balio negatiborik jaso.



Espezifikoki, agerikoak izateagatik tokiko identitatea ezartzen laguntzen duten eremu hauek nabarmendu dira:

- Eremu Bereziak:
 - Urkiolako Parke Naturala (Aramotz mendizerra, Anboto...)
 - Durangoko hornidura-merkatua
 - Zaldibarko Santamariñazar mendia
 - Aixolako urtegia
- Eremu Degradatuak:
 - Atxarteko harrobia
 - AHTko pasabidea
 - Zaldibarko zabortegia
 - Oizko parke eolikoa
 - Ibur-erreka industria-gunea (Zaldibarko Olarreaga auzoa)

ETORKIZUNeko PAISAIA

Parte-hartzaileek etorkizunean izan nahiko luketen paisaia honela zehaztu dute:

- Paisaia multifuntzionala, iraunkorra eta erresilientea, parke gehiago eta azpiegitura, eraikin eta industria-gune gutxiago dituen. Guzti hauek ingurunean integratuta.



- Paisaia naturalago bat, bertako landaredi gehiago duena, zaindua, baloratua eta errespetatua. Eredu degradaturik ez duena, eraikin gutxiagorekin eta hiri barneko edo inguruko parke eta zuhaitz gehiago dituen.
- Lehen sektore aktiboagoa, iraunkoragoa eta integratua duen paisaia, biodibertsitatea errespetatzen duena.
- Hirigune historiko zainduak mantentzen dituen paisaia.
- Oinezkoen ikuspuntutik hiriguneetatik hobeto lotutako paisaia.
- Ekonomikoki jasangarriagoa den eta ingurumenaren aldetik gutxiago kutsatzen duen paisaia.

PAISAIA-HELBURUAK

Fase honetako partaidetza ekintza guzti hauetatik, ondorengo paisaia-helburuak proposatzen dira:

- Pinu eta eukalipto gutxiago dituen paisaia lortzea.
- Udalak eta partikularrak bertako landaredi gehiago landatzeko kontzientziatzea.
- Nekazaritza eta abeltzaintzako lehen sektorea berpiztea.
- Natura- eta kultura-ondarearen galera ekiditea (ukigarria eta ukiezina).
- Urkiolako Parke Naturala kontserbatzea.
- Ezagutza sortzea.
- Paisaia mailan pertsonak eta erakunde publiko eta pribatuak informatzea, prestatzea eta sentsibilizatzea.
- Azpiegitura berriak eraiki gabe mugikortasuna hobetzea.
- Hiri- eta herrigune osasungarriagoak lortzea.
- Eraikin eta azpiegitura handi berriak saihestea.

PAISAIA HOBETZEKO PROPOSATUTAKO EKINTZAK

Paisaia hobetzeko proposatutako ekintzak 9 puntutan taldekatu dira:

1. *Paisaia eta baliabide naturalen kontserbazioa eta hobekuntza.*

Orokorrean, proposatutako ekintzak nagusiki ondorengora bideratzen dira:



- Paisaia eta baliabide naturalak zaindu, kontserbatu eta babestea (mendiak, errekek, bertako basoak, flora, fauna, ura, lurzorua...), biodibertsitatea emendatuz.
- Eremu degradatuak berreskuratzea, bai ingurune naturalekoak, bai landa- eta hiri-ingurunetakoak, harrobietakoak, industria-eremuetakoak, eremu alubialak...
- Baso-politika eta -kudeaketa jasangarria eta erresilinetza gauzatzea, bertako landaredia sustatuz eta baso-soiltzea saihestuz.

Espresuki ondorengoak ere proposatzen da:

- Atxarteko harrobiaren ingurumen- eta paisaia-berreskuratzea.
- Zaldibarren Zaldutxo erreka ibilgua birnaturalizatzea (berriro azalera ateratzea).
- Durangoko trenbide zaharretan parke bat eraikitzea.

2. *Lehen sektorea*

Lehen sektorea babestu eta indartzeko beharra aipatzen da, ekoizpenetik hasita produktuen merkaturatzeraino. Honetarako, erraztasunak eta laguntzak (teknikoa, ekonomiko-finantziarioa, kudeaketa eta merkaturatze-arlokoa...) ematea. Honekin, sektorea bizirik mantentzea eta belaunaldien arteko erreleboa ziurtatzea nahi da, bai eta tokiko merkataritza sustatzea ere.

Era berean, baso-politikan aldaketa bat egitearen garrantzia azpimarratzen da kudeaketa jasangarriago eta erresilienteago bat lortzeko. Honetarako, espezieak dibertsifikatzea eta bertako espezieen ehunekoa handitzea eta zenbait espezieen erabilera debekatzea aipatzen da. Udalek bertako espezieak landatzeko lurrak erosteko neurriak hartzea, partikularrek bertako espezieak landatzeko laguntzak ematea eta abar aztertzea eskatzen da.

3. *Sentsibilizazioa eta kontzientziazioa*

Pertsona guztien (egoiliarak, langileak, bisitariak, enpresak, administrazioak, ikasleak...) sentsibilizazioa eta kontzientziazioa proposatzen da.

4. *Industria-kokapenak, azpiegiturak eta zerbitzuak*

Puntu honetan jasotako ekintzak ondorengoak dira:

- industrialdeak, azpiegiturak eta zerbitzuak hobetzea, hiriguneetatik industria-jarduera oso ateraz eta ingurunean integratuta dauden kokaleku zainduetan ezarritik.



- Azpiegitura eta eraikuntza gehiago egitea saihestea, daudenak hobetuz eta AHTa bezalako azpiegitura berriak eraikitzea eragotziz.
- Tentsio handiko lineak lurrazpian sartzea.
- Dauden garraio publikoko zerbitzuak areagotzea (maiztasuna eta konexioak).
- Egunerako joan-etorrietan (lana, eskolak, erosketak...) mugikortasun jasangarria izateko oinezkoen eta bizikleten konexio-sarea hobetzea eta handitzea.

5. *Eraikitako ondare kulturala*

Eskualdeko arkitektura historikoa eta tradizionala ez galtzeko ekintzak proposatzen dira. Adibidez, hirigune eta eraikin historikoak, baserriak edo eraikitako beste elementu batzuk birgaitzea, antzinako erabilera berreskuratuz edo erabilera berriak emanez. Zehazki, Zaldibarko eta Durangoko hornidura-merkatuak berriztea proposatzen da.

6. *Lurraldearen plangintza eta kudeaketa*

Atal honetan hurrengo proposamenak sartzen dira:

- Lurralde-politika eta -kudeaketa egokira bideratutako ekintzak, paisaia kontuan hartzen dutenak eta gaian eskumena duten profesionalak egina.
- Hirigintza-hedapena eta azpiegitura berriak mugatzea..
- Kutsadura kontrolatzea (atmosfera, errekena, akustikoa...).

7. *Gizarte parte-hartzea*

Erabakiak hartzerakoan, gizartearen parte-hartzea kontuan hartza proposatzen da, bai eragileena bai herritarrena. Horrela, erabaki adostuak hartzea baimenduz eta ez alde bakarrez eta gutxi batzuek bakarrik hartuak.

8. *Ezagutzaren sorrera*

Eskualdearen errealitatearekin bat datozen helburuak eta ekintzak zehazteko garrantzitsutzat jotzen da ezagutza sortzea: ekosistemen zerbitzuen eta hauen multifuntzionalitatearen ebaluazioa, flora eta faunaren inbentarioak, egungo egoeraren, espezie eta habitat zehatzen jarraipenaren, arkeologia-enklabeen edo ustez izan daitezkeeneko, ekoizpen-baliabideen, merkatu berrien eta abarren ikerketa eta azterketa.

9. *Osasuna eta aisialdia*


Atal honen barruan aisialdirako eta osasunerako espazioak sortzeko proposamenak barne hartu dira:

- Oinezkoen ibilbide-sarea hobetzea.



- Txakurrentzako gune handiak prestatzea.
- Hiriguneak garbi eta zigarrokinik gabe mantentzea (zaborra haizearekin hegan ez ateratzeko zaborrontzi estalduak, zigarrokinak eta beste hondakin batzuk uretan ez amaitzeko estoldetan koladoreak jartzea...)

Hurrengo grafikoan ikusi daitekeen moduan, parte-hartzaileek gehien eskatzen dituzten ekintzak paisaia eta baliabide naturalak kontserbatzera eta hobetzera bideratutakoak dira (%43). Hala ere, proposatutako gainerako ekintzak, proportzio baxuagoan adierazi badira ere, garrantzitsuak dira Paisaiaren Kalitate Helburuak zehazterako orduan.



Durangaldeko paisaia hobetzeko proposatutako ekintzen motak, ehunekotan adierazita

NOLA BATERATU GARAPEN JASANGARRIA ETA PAISAIA?

Orokorrean, puntu hau lan zaila iruditzen zaie parte-hartzaile guztiei, baina bat datoz garapen orekatu eta kontzientean oinarritu behar dela, inplikaturako pertsona eta eragile guztiak barne hartzen eta errespetatzen dituen.

Garapena eta paisaia bateratzeko proposatutako ekintzat 5 taldetan banatu dira:

1.- Jardun aurretik hausnartzea

- Zer da benetan behar duguna denak irabaziko dugun garapen bat izateko eta ez bakarrik gutxi batzuek.
- Kontuan izan lortzeko zeozer eman beharko dugula.
- Noraino hazi nahi garen erabaki eta mugak jarri.

Horretarako, garrantzitsua da paisaiaren edukiera ezagutzea.

2.- Ingurumen-, ekonomia- eta kultura-alderdien eta bizitzeko beste esparru batzuen arteko oreka bilatzea.



- Lehen sektorea bizitza modernoan integratzea, nekazaritza- eta abeltzaintza-jarduera bultzatuz eta tokiko kontsumoa sustatuz. Honetarako, merkaturatzeko erraztasunak emanez (elikadura-dendak, azokak, jardunaldi gastronomikoak...) eta tokiko produktuak kontsumituz (eskola-, gizarte- eta enpresa-jantokiak, egoitzak, jatetxeak, elikagai-saltokiak, partikularrak...).
- Baso-garapen eta -kudeaketa jasangarria, naturarekin orekan dagoen plangintza egokiarekin.
- Biztanlerian eragin positiboa sortzen duten prozesuen edozein ekintza gauzatzea (kalitatezko enplegua, ongizatea eta bizi-kalitatea). Beti ere ingurune naturala errespetatuz.
- Basoak berreskuratzea.
- gure paisaiaren nortasun-elementuak eta balore positiboak errespetatzea eta kontserbatzea.
- Tokiko sentimendua indartzea, bai Durangaldean bizi direnena, bai bertan lan egiten dutenena eta maiz bisitatzen dutenena.

3.- Mugikortasun funtzionalaren alde egitea, daukaguna optimizatuz eta xahutu gabe.

- Dauden azpiegiturak mantendu eta hobetu, berriak eraiki gabe.
- Dagoen garraio publikoa bultzatu eta hobetu, ordutegi eta geltoki gehiago jarritz. Modu honetan, azpiegitura berrien (AHT) garapena saihesteko.

4.- Sentsibilizazioa, kontzientziazioa eta errespetua.

- Herritarrak, administrazioak, enpresariak eta gizartearen gainerako sektoreak paisaiaren eta bere inplikazioen inguruan sentsibilizatzea eta kontzientziazatzea sustatu.
- Pertsonen arteko eta bizi garen ingurunearekiko errespetua sustatzea.


5.- Erakunde, eragile eta herritarren arteko lankidetzeta eta elkarlan eraginkorra.

- Politika, kudeaketa eta administrazio egokia eta zintzoa.
- Erabakietan gizarte osoaren parte-hartzea eta inplikazioa.

Jasotako iritziak aztertuz, ingurumen-, ekonomia- eta kudeaketa-alderdien ta bizitzako beste esparruen arteko oreka bilatzeko premian adostasun handia ikusten da (%50). Bestalde, jardun aurretik hausnartzea (%15) eta erakunde, eragile eta herritarren artean lankidetzan eta elkarlanean aritzea ere (%15) garrantzitsutzat jotzen da. Horrez gain, askok gizartearen ingurumenarekiko sentsibilizazioa eta kontzientziazioa



